

Gurutze Gorriak, DYAk eta Caritasek behar gehien dutenei laguntzen jarraitzen dute alarma egoeran ere

[KORONABIRUSAREN ERAGINA GUREAN](#)

Zarauzko Hitza 2020-04-26 09:00



Caritasek bildutako elikagaiak. (Zarauzko Udala)

Laguntza eskaerak herritarren arretarako telefono zenbakian jaso dituzte, 010ean, eta udaleko Gizarte Zerbitzuek koordinatzen dituzte.

Gurutze Gorria, DYA eta Zarauzko Caritasek laguntza ematen dihardute egunotan ere zaugarritasun egoeran dauden zarautzarrei. Besteak beste, elikagaiak eta botikak erosten dizkiete adinekoei eta baliabide ekonomiko mugatuak dituzten edo egoera "bereziak" dituzten bizilagunei.

Caritas Zarautzek antolatu eta kudeatzen du elikagaien banaketa; Gurutze Gorriak laguntza eskaintzen die hala eskatzen duten pertsonen oinarriko beharrezararako eta, DYAk boluntarioek, besteak beste, etxez etxeko botiken entrega kudeatzen dute –dagoeneko 945 zerbitzu eman dituzte–, eta etxean maskarak egiteko materiala banatu eta biltzen dute –mota honetako 57 zerbitzu eskaini dituzte–.

Jesus Arana Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak azaldu du, guztira, 130 familien beharrei erantzun zaiela astero. Eskatera guztiak herritarren arretarako telefono zenbakian egiten dira, 010ean, eta udaleko Gizarte Zerbitzuek koordinatzen dituzte. Eskaintako laguntzagarriak, eskerrak eman dizkie udalak Gurutze Gorriko, DYAk eta Zarauzko Caritaseko boluntarioei: "Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizuegu bizi ditugun une latz hauetan erakutsitako konpromisoagatik, borrokagatik, profesionaltasunagatik eta lanagatik", nabarmendu du Aranak.

Gurutze Gorriko zuzendari Felix Zubiak azaldu du Pandemia hasi zenetik 50 eskaera inguru jaso dituztela; horietako gehienak erosketak egiten laguntzeko, farmaziara joateko eta egunerokorako beharrezkoa den beste zerbait jasotzeko izan dira. Guztira, ondoko zerbitzuak eskaini ditu Gurutze Gorriak: erosketak etxera eramateko 24 zerbitzu, zaborra jaisteko 11, sendagaiak eramateko hamalau, eta etxez aldatzeko laguntza zerbitzu bat.

Caitasen lana ere azpimarratu nahi izan du udalak. 1.600 kilo elikagai bildu dituzte, egoera zaugarrian dauden familien eta pertsonen artean banatzeko. Lan solidario horietan, Gipuzkoako Caritas elkarteak babestu du Zarauzko taldea. COVID-19 pandemiak sortutako egoeraren aurretik, Caritas Zarautzek 30 familiari banatzen zizkien elikagaiak, baina, azken hilabeteetan, hirukoiztu egin dute laguntza, 100 familia ingururi janaria banatuz. Elikagaien banaketa bost boluntarioen artean egiten dute, bi egunez, jende pilaketak ekiditzeko.

[Gizartea](#)

Erantzun ▼



Ikusienak



[Aire freskoaz gozatu dute Zarauzko haur eta gaztetxoek](#)

[Koronabirusaren eragina gurean](#)

Amaia Urbieta Arruti

api 26, 13:30 [Zarautz](#)




[Noraino joan daiteke umeekin?](#)

[Koronabirusaren eragina gurean](#)

Zarauzko hitza api 25,

09:30 [Zarautz](#)



[Maitzaren 2tik aurrera kirola egitera atera ahal izango da COVID-19 gaitzaren garapena positiboa bada](#)

[Koronabirusaren eragina gurean](#)

Zarauzko Hitza api 25,

20:52 [Zarautz](#)



[Beste bi koronabirus kasu atzeman dituzte Zarautzen azken orduetan](#)

[Koronabirusaren eragina gurean](#)

Zarauzko Hitza api 26,

14:13 [Zarautz](#)



[Anbulatorioko langileek eskerrak eman dizkiete herritarrei](#)

[Koronabirusaren eragina gurean](#)

Zarauzko Hitza api 24

[Zarautz](#)



[Adinekoek ere irteteko aukera izango dute maitzaren 2tik aurrera](#)

[Koronabirusaren eragina gurean](#)

Zarauzko Hitza api 26,

19:36 [Zarautz](#)

Urola Kostako Hedabideak S.L.

Araba kalea 25, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Tel: 943 89 00 17 | zarautz@hitza.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)